Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

# ALKATEAREN DEKRETUA

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124.4. artikuluko k) eta ñ) letretan xedatutakoari jarraiki, alkateari dagokio udal administrazio betearazlearen antolakuntza eta egitura finkatzea, udal antolakuntzaren alorrean Udalbatzari dagozkion eskumenak salbu, bat etorriz lege horretako 123.1.c) artikuluarekin eta Udalbatzaren Araudi Organikoaren 4.1 artikuluarekin. Horrenbestez, Udalbatzari dagokio antolakuntzaren funtsezko mailak zehaztea, eta alkateari organoen kopurua erabakitzea nahiz beheragoko maila osagarriak ezartzea.

Eskumen horien arabera,

**XEDATU DUT**

**LEHENA.-** Gasteizko Udalaren antolakuntzaren aldaketa onestea, Udal Antolakuntza Araudian ezarritako udal-antolakuntzaren funtsezko mailak kontuan hartuz; zehazki, hau izango da antolakuntza berria:

**1.- Arloak**

Hiru arlo ezartzen dira:

- Alkatetzaren, Kirol eta Osasunaren, Ogasunaren eta Giza Baliabideen Arloa.
- Gizartearen, Ekonomia Sustapenaren, Herritarren Segurtasunaren eta Kulturaren Arloa.
- Lurraldearen, Klimaren aldeko Ekintzaren, Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Arloa.

Arlo horiek I. eranskinean jasotakoaren arabera egituratzen dira.

**2.- Sailak eta zerbitzuak**

Sal eta zerbitzuak II. eranskinean jasotakoaren arabera egituratzen dira.

**3.- Erakunde autonomoak**

Gizartearen, Ekonomia Sustapenaren, Herritarren Segurtasunaren eta Kulturaren Arloari atxiki zaizkio “Jose Uruñuela” Udal Dantza Kontserbatorioa eta “Luis Aranburu” Udal Musika Eskola.

Lurraldearen, Klimaren aldeko Ekintzaren, Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Arloari atxiki zaio Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (IGI).

**BIGARRENA**.- Zinegotzi hauek izendatzen dira arloko arduradun:

- **IÑAKI GURTUBAI ARTETXE jauna**, Alkatetzaren, Kirol eta Osasunaren, Ogasunaren eta Giza Baliabideen Arlokoa.
- **MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA andrea**, Gizartearen, Ekonomia Sustapenaren, Herritarren Segurtasunaren eta Kulturaren Arlokoa.
- **ANA OREGI BASTARRIKA andrea**, Lurraldearen, Klimaren aldeko Ekintzaren, Mugikortasuna-ren eta Espazio Publikoaren Arlokoa.

**HIRUGARRENA**.- Funtzio Publikoaren, Ogasunaren eta Udal Administrazioaren sailei antolakuntzaren egiturako kodeak egokitu ditzaten agintzea.

**LAUGARRENA**.- Funtzio Publikoaren Sailari agintzea, batetik, Lanpostuen Zerrenda egoera berrira egokitu dezala, eta bestetik lanpostuak zein pertsonak udal-egitura berriari berratxiki ditzala.

**BOSGARRENA**: Sinatzen den egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 21ean.

**ALKATEA**

## 1. ERANSKINA

| | |
|---|---|
| **ALKATETZAREN, KIROL ETA OSASUNAREN, OGASUNAREN ETA GIZA BALIABIDEEN ARLOA**<br><br>Iñaki Gurtubai Artetxe | ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK |
| | KIROLA ETA OSASUNA |
| | OGASUNA |
| | GIZA BALIABIDEAK |

| | |
|---|---|
| **GIZARTEAREN, EKONOMIA SUSTAPENAREN, HERRITARREN SEGURTASUNAREN ETA KULTURAREN ARLOA**<br><br>Maider Etxebarria Garcia | GIZARTE POLITIKAK, ADINEKOAK ETA HAURRAK |
| | EKONOMIA SUSTAPENA, ENPLEGUA, MERKATARITZA ETA TURISMOA |
| | HERRITARREN SEGURTASUNA |
| | HEZKUNTZA ETA KULTURA |
| | UDAL ADMINISTRAZIOA ETA ERALDAKETA DIGITALA |
| | HERRITARREN PARTAIDETZA, GARDENTASUNA ETA GIZARTE ETXEAK |
| | "JOSE URUÑUELA" UDAL DANTZA KONTSERBATORIOA |
| | "LUIS ARANBURU" UDAL MUSIKA ESKOLA |

| | |
|---|---|
| **LURRALDEAREN, KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN ARLOA**<br><br>Ana Oregi Bastarrika | LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA |
| | INGURUMENA ETA ESPAZIO PUBLIKOA |
| | INGURUGIRO GAIETARAKO IKASTEGIA (IGI). |

## 2. ERANSKINA

## UDAL EGITURA BERRIA

**ZUZENDARITZA ORGANOAK**

| SAILA | ZERBITZUA |
|---|---|
| ZUZENDARITZA ORGANOAK | UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA<br>TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA<br>AHOLKULARITZA JURIDIKOA<br>ORGANO EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN ZERBITZUA |
| KONTU HARTZAILETZA ETA IKUSKARITZA | KONTU HARTZAILETZA ETA IKUSKARITZA |

**ALKATETZAREN, KIROL ETA OSASUNAREN, OGASUNAREN ETA GIZA BALIABIDEEN ARLOA**

| SAILA | ZERBITZUA |
|---|---|
| ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK | UDALBATZAREN BULEGOA<br>ZUZENDARITZA NAGUSIA<br>ADMINISTRAZIOA<br>GAZTERIA<br>KOORDINAZIO NAGUSIAREN<br>BERDINTASUNA<br>EUSKARA<br>PROTOKOLO ETA ERAKUNDE KOMUNIKAZIORAKO ZERBITZUA<br>BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNA |
| KIROLA ETA OSASUNA | ZUZENDARITZA NAGUSIA<br>ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA<br>OSASUN PUBLIKOA<br>KIROLA |
| OGASUNA | ZUZENDARITZA NAGUSIA<br>ZERGA KUDEAKETA<br>KONTRATAZIO ZERBITZU NAGUSIA<br>KONTABILITATE ORGANOA<br>ZERGA IKUSKARITZA<br>AURREKONTUAK FINANTZA-KUDEAKETA ETA DIRUZAINTZA<br>DIRU-BILKETA<br>IDAZKARITZA TEKNIKOA<br>EROSKETAK ETA KONTRATAZIOAN LAGUNTZEA |
| GIZA BALIABIDEAK | ZUZENDARITZA NAGUSIA<br>LANGILEEN ADMINISTRAZIOA<br>GIZA- BALIABIDEEN KUDEAKETA<br>ANTOLAKUNTZAREN KUDEAKETA<br>LANEK0 ARRISKUEN PREBENTZIOA |

**GIZARTEAREN, EKONOMIA SUSTAPENAREN, HERRITARREN SEGURTASUNAREN ETA KULTURAREN ARLOA**

| SAILA | ZERBITZUA |
|---|---|
| GIZARTE POLITIKAK, ADINEKOAK ETA HAURRAK | ZUZENDARITZA NAGUSIA<br>ADMINISTRAZIOA<br>GIZARTE INKLUSIOA<br>HAURTZAROA ETA SENITARTEA<br>ADINEKOAK<br>KOMUNITATE JARDUERA<br>GARAPENEAN LAGUNTZEA |
| EKONOMIA SUSTAPENA, ENPLEGUA, MERKATARITZA ETA TURISMOA | ZUZENDARITZA NAGUSIA<br>ADMINISTRAZIOA<br>PROIEKTUAK<br>ENPRESEN<br>MERKATARITZA<br>PRESTAKUNTZA, ENPLEGU SUSTAPENA ETA EKONOMIA SOZIALA<br>BILTZAR<br>TURISMOA |
| HERRITARREN SEGURTASUNA | ZUZENDARITZA NAGUSIA<br>KUDEAKETA ETA BALIABIDEAK<br>PREBENTZIOA, SU ITZALTZEA ETA SALBAMENDUA<br>UDALTZAINGOA |
| HEZKUNTZA ETA KULTURA | ZUZENDARITZA NAGUSIA<br>ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA<br>KULTURA<br>HEZKUNTZA |
| UDAL ADMINISTRAZIOA ETA ERALDAKETA DIGITALA | ZUZENDARITZA NAGUSIA<br>APLIKAZIOAK<br>USTIAPEN ETA KOMUNIKAZIOEN ZERBITZUA<br>IDAZKARITZA TEKNIKOA<br>UDAL ZERBITZUAK GARATZEA<br>IZAPIDEAK GARATZEA<br>ARKITEKTURA ETA PLATAFORMAK<br>HERRITARRENTZAKO LAGUNTZA |
| UDAL ADMINISTRAZIOA | ADMINISTRAZIOA<br>GARBIKETA<br>PROIEKTU ETA KONTRATAK<br>INSTALAZIOAK ETA KONTRATUEN KUDEAKETA<br>AZPIEGITURAK<br>OBRAK |
| HERRITARREN PARTAIDETZA, GARDENTASUNA ETA GIZARTE ETXEAK | ZUZENDARITZA NAGUSIA<br>ADMINISTRAZIOA<br>GIZARTE ETXEAK<br>HERRITARREN PARTEHARTZEA |

**LURRALDEAREN, KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN ARLOA**

| SAILA | ZERBITZUA |
|---|---|
| LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA | ZUZENDARITZA NAGUSIA<br>PLANGINTZA ETA HIRIGINTZA ANTOLAMENDUA GAUZATZEA<br>ERAIKUNTZAK<br>PLANGINTZA ETA PROIEKTUAK<br>JURIDIKO ADMNISTRATIBOA<br>NEKAZARITZA EREMUA<br>PLANGINTZA ETA INGURUMEN KUDEAKETA |
| INGURUMENA ETA ESPAZIO PUBLIKOA | ZUZENDARITZA NAGUSIA<br>ADMINISTRAZIOA<br>ESPAZIO PUBLIKOA ETA NATUR INGURUNEA<br>TRAFIKOA<br>AUTOBUS GELTOKIA |